

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak "Lanbide Heziketako gazte ekintzaileak" lehiaketako 14. edizioko sariak banatu ditu

Tafallako LHlko "La compra en casa" eta Donapeako (Iruñea) LHlko "Motor-Van" proiektuak izan dira irabazleak

Martes, 19 de junio de 2012

Hezkuntzako kontseilari José Iribas izan da buru "Lanbide Heziketako gazte ekintzaileak" lehiaketako hamalagarren edizioko sari-banaketan. Lehiaketa hori Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europar Zentroa (CEIN) sozietate publikoak antolatzen du.

Enpresa-planaren mailan, saritutako proiektua Tafallako LHlko ikasleek aurkeztutako "La compra en casa" ("Erosketak etxean") izan da. Donapeako (Iruñea) LHlko ikasleek proposatutako "Motor-Van" proiektuak, berriz, enpresa-ideiaren mailan jaso du saria. Bi proiektetako kideek netbook bat jaso dute..

Halaber, Cuatro Vientos institutuari (Iruñea) sari bat eman zaio, proiektu gehien eta kalitate handienekoak aurkezteagatik, bai haien garapenean, bai epaimahaiaren aurrean egindako azalpenean.

Sari-banaketan parte hartu dute, gainera, Lanbide Heziketako Zerbitzuko zuzendari Marino Barásoain-ek eta CEINeko Sormen, Berrikuntza eta Teknologiako zuzendari Beatriz Blasco-k.

Lehiaketa honen helburuak lankide heziketako ikastetxeetako ikasleak ekintzailtzako ekimenean heztea da, enpresa-sorreraren mundura hurbiltzea eta duten ekimen, sormen eta ekintzailtza-jokabidea saritzea.

Lehiaketa bi mailatan banatzen da. Enpresa-planaren mailan lan bat



Iribas kontseilaria irabazle izan diren proiektuetako kideekin.



Iribas kontseilaria finalista izan diren proiektuetako kideekin.

aurkeztu behar da, eta bertan negoziarako ideia bat azaldu behar da zehatz-mehatz, sortzen denetik haren bideragarritasun-azterketaraino. Enpresa-ideiaren mailan negoziarako ideien hautematean edo proposamenean oinarritutako lan bat aurkeztu behar da, garapen simple bat eginez.

Aurtengo edizioan 25 proiektuk hartu dute parte guztira (zazpi enpresa-planaren mailan eta hemezortzi enpresa-ideiaren mailan), eta eta lanbide heziketako sei ikastetxetako 92 parte-hartzaile izan dira: Energia Berriztagarrien Goi Lanbide Heziketako Zentro Integratua (CISER), Donapea LHI, Cuatro Vientos institutua, María Ana Sanz BHI (Iruñea), Tafallako BHI eta Sierra de Leyre BHI (Irunberri).

Proiektu irabazleak

Enpresa Planaren mailan "La compra en casa" ("Erosketak etxean") proiektuak jaso du lehen saria; proiektu hori erosketen komunitate bat da, zonaldean egindako elikagaien produktuak sustatzen ditu eta supermerkatutik etxera arteko garraioa du. Proiektu hori Tafallako BHIan Administrazio eta Finantzen goi-mailako ikasle Shela Irisarri, Imanol Azkona eta Jesús Sainz-ek egin dute. Maila horretako proiektu finalistak izan dira: Newyou (Donapea LHI), Playxtreme (Cuatro Vientos institutua) eta Cosi&cosi (Cuatro Vientos institutua).

Enpresa Ideiaren mailan lehen saria "Motor-Van"-entzat izan da. Proiektu horrek furgoneta eta autokarabanen egokitzapena proposatzen du aisialdiko ibilgailu gisa, eta bidaiatzeko erabili ahal izango dira oporretan bertan bizitzeko. Jarduera horri ibilgailuaren elektromekanikari eta haren mantentze-lanari lotutakoak gehituko zitzaizkion. Donapea LHiko Ibilgailuen Elektromekanikako lehen mailako ikasle Iñaki Celaya, Cristian Montaña, Mihail Poleacov eta Álvaro Gutiérrez dira egileak. Fotemo (CISER), H2.cero (Sierra de Leyre BHI) eta SocialTV (Instituto Cuatro Vientos institutua) proiektuak finalistak izan dira maila horretan.